

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

LEGAZPIKO UDALA*Iragarkia*

Legazpiko Udal Korporazioaren Osoko Bilkurak, joan den 2015-11-25ean egin zuen ohiko bileran, hasierako onespena eman zion Legazpiko Udaleko Gardentasunari, informaziorako sarbideari eta berrerabiltzeari buruzko Udal Ordenantzari.

Hasiera bateko onspenaren iragarkia 2015-12-3ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu zen.

Jendeaurreko informazio-epa amaiturik eta alegazioak aurkeztu ez direla ikusi ondoren, aipatu Ordenantzaren aldaketa behin betiko onspena jaso duela ulertzen da, beraz argitaratzen da.

Legazpi, 2016ko otsailaren 12a.—Alkatea. (990)

**GARDENTASUNARI, INFORMAZIORAKO SARBIDEARI ETA
BERRERABILTZEARI BURUZKO ORDENANTZA**

AURKIBIDEA

Zioen azalpena.

I. kapitulua. «Xedapen orokorrak».

1. artikulutik 7.era.

II. kapitulua. «Informazio publikoa».

8. artikulutik 11.era.

III. kapitulua. «Informazioaren publikotasun aktiboa».

Araubide orokorra.

12. artikulutik 15.era.

IV. kapitulua. «Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea».

1. atala. Araubide juridikoa.

16. artikulutik 17.era.

2. atala. Prozedura.

18. artikulutik 24.era.

V. kapitulua. «Informazioa berrerabiltzea».

25. artikulutik 32.era.

VI. kapitulua. «Erreklamazioak eta zehapen-araubidea».

1. atala. Erreklamazioak.

33. artikulua.

2. atala. Zehapen-araubidea.

34. artikulutik 38.era.

VII. kapitulua. «Ebaluazioa eta jarraipena».

39. artikulutik 42.era

Xedapen iragankor bakarra. Gauzatzeko neurriak.

Azken xedapen bakarra. Indarrean sartzea.

AYUNTAMIENTO DE LEGAZPI*Anuncio*

El Pleno del Ayuntamiento de Legazpi en sesión ordinaria celebrada el día 25-11-2015 aprobó con carácter inicial la Ordenanza de Transparencia, acceso a la Información y Reutilización del Ayuntamiento de Legazpi.

El anuncio de la aprobación inicial fue publicado en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa de 3-12-2015.

Transcurrido el plazo de información pública sin que se hayan presentado alegaciones, la citada Ordenanza se entiende aprobada definitivamente por lo que se procede a su publicación.

Legazpi, a 12 de febrero de 2016.—La alcaldesa. (990)

**ORDENANZA DE TRANSPARENCIA, ACCESO A LA INFORMACIÓN
Y REUTILIZACIÓN**

ÍNDICE

Exposición de motivos.

Capítulo I. «Disposiciones generales».

Artículos del 1 al 7.

Capítulo II. «Información pública».

Artículos del 8 al 11.

Capítulo III. «Publicidad activa de información».

Régimen general.

Artículos del 12 al 15.

Capítulo IV. «Derecho de acceso a la información pública».

Sección 1.ª Régimen jurídico.

Artículos del 16 al 17 14.

Sección 2.ª Procedimiento.

Artículos del 18 al 24 14.

Capítulo V. «Reutilización de la información».

Artículos del 25 al 32.

Capítulo VI. «Reclamaciones y régimen sancionador».

Sección 1.ª Reclamaciones.

Artículo 33.

Sección 2.ª Régimen sancionador.

Artículos del 34 al 38.

Capítulo VII. «Evaluación y seguimiento».

Artículos del 39 al 42.

Disposición transitoria única. Medidas de ejecución.

Disposición final única. Entrada en vigor.

GARDENTASUNARI, INFORMAZIORAKO SARBIDEARI ETA
BERRERABILTZEARI BURUZKO ORDENANTZA

ZIOEN AZALPENA

Gardentasuna eta horren ondorio praktikoa, parte-hartzea, funtsezko bi printzipio dira estatu modernoetan. Espainiako Konstituzioak eskubidetzat jasotzen ditu testuan, funtsezko eskubidetzat zenbait kasutan, eta, beraz, garrantzi handikotzat eta babestu beharrezkotzat.

a) «Egiazko informazioa edozein hedabidetatik emateko edo jasotzeko eskubidea» (20.1.d art.).

b) «(...) herri-gaietan parte hartzeko eskubidea dute, zuzenean (...)» (23.1 artikulua).

c) «Hiritarren sarbidea administrazio-agiritegi eta -erregistroetan; Estatuko segurtasunean eta defentsan, delituen miaketan edota gizakien barrukotasunean eragina duten kasuetan izan ezik» (105.b artikulua).

Azken urteotako testuinguru sozial eta teknologikoak ari indar handiagoz eskatzen ditu eskubide horiek, eta orain arte xedapen bakan batzuek baino ez zituzten bermatzen, hala nola herri-administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 37. artikulua. Eskubide horiek jasota daude, halaber, herritarrek zerbitzu publikoetan sarbide elektronikoa izateari buruzko ekainaren 22ko 11/2007 Legeko 6.2 artikuluan, eta lege horretako azken xedapenetatik hirugarrenak toki-administrazioak aipatzen ditu berariaz.

Bestalde, toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 70 bis.3 artikulua, toki-administrazioa eraberritzeko neurriei buruzko abenduaren 16ko 57/2003 Legeak txertatutakoak, honako hau ezartzen du, hitzez hitz, aipatutako azken xedapen horren antzeko testua erabiliz:

«... toki-erakundeek eta, bereziki, udalerriek, informazio eta komunikazioko teknologien erabilera interaktiboa bultzatu behar dute, auzotarren parte-hartzea eta komunikazioa errazteko, agiriak aurkezteko eta administrazioko izapideak, inkestak eta, hala denean, herri-galdeketak egiteko. Udalerriek, ekonomiarako eta kudeaketarako gaitasun nahikorik ez dutelako, paragrafo honetan ezarritako eginbeharra maila nahikoan bete ezin badute, probintzietako diputazioek, kabildoek eta uharterretako kontseiluek jardungo dute haiekin lankidetzan».

Agindu hori apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 25.2 artikuluko ñ) paragrafo berriarekin, toki-administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasunari buruzko abenduaren 27ko 27/2013 Legeak txertatutakoarekin, lotu behar da; paragrafo horretan jasotakoaren arabera, udalei dagokie beren udalerrian herritarren parte-hartzea sustatzea, informazio eta komunikazioko teknologien erabilera eraginkor eta iraunkorraren bidez.

Bai 27/2013 Legeak, abenduaren 27koak, bai gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko 19/2013 Legeak, abenduaren 9koak, bai eta beste arau berri batzuek edo une honetan izapidetze-bidean direnek ere –«gobernu ireki» izenez ezagutzen dena arautzen dutenak–, berretse dute tokiko erakundeek oinarri juridiko nahikoa badutela berori ezartzeko, eta aipatutako gardentasun-printzipioa da, hain zuzen ere, funtsezko zutabeetako bat. 19/2013 Legeak, abenduaren 9koak, honako hau ezartzen du azken xedapenetatik bederatzigarrenean: «autonomia erkidegoetako eta tokiko erakundeetako organoek gehienez ere bi urte izango dituzte lege honetan jasotako betebeharrei egokitzeko». Xede horretarako, arau horretara egokitzeko barne-prozesua abiartzeko dute tokiko erakundeek, eta, beste neurri batzuen artean, ordenantza baten bitartez gaia osorik arautzea komeni da. Ordenantza honen helburuetako bat, beraz, legea garatzeko ohiko helburuaz gain, pizgarri bat sortzea eta tokiko erakundeetan tokiko gobernu gardenei dagozkien neurri bereziak ezartzen

ORDENANZA DE TRANSPARENCIA, ACCESO A LA INFORMACIÓN
Y REUTILIZACIÓN

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

La transparencia y su consecuencia práctica, la participación, son dos principios fundamentales en los estados modernos. La Constitución española los incorpora a su texto en forma de derechos, algunos de ellos fundamentales y, por tanto, de la máxima importancia y protección.

a) «A comunicar o recibir libremente información veraz por cualquier medio de difusión» (Art. 20.1.d).

b) «(...) a participar en los asuntos públicos, directamente (...)» (artículo 23.1).

c) «El acceso de los ciudadanos a los archivos y registros administrativos, salvo en lo que afecte a la seguridad y defensa del Estado, la averiguación de los delitos y la intimidad de las personas» (artículo 105.b).

El contexto social y tecnológico de los últimos años no ha hecho sino demandar con más fuerza estos derechos, garantizados en parte hasta el momento mediante disposiciones aisladas como el artículo 37 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común. Estos derechos tienen asimismo su plasmación en el artículo 6.2 de la Ley 11/2007, de 22 de junio, de acceso electrónico de los ciudadanos a los Servicios Públicos, cuya disposición final tercera se refiere específicamente a las administraciones locales.

Por otra parte, el artículo 70 bis.3 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, introducido por la Ley 57/2003, de 16 de diciembre, de medidas para la modernización del gobierno local, establece literalmente con una redacción similar a la citada disposición final:

«... las entidades locales y, especialmente, los municipios, deberán impulsar la utilización interactiva de las tecnologías de la información y la comunicación para facilitar la participación y la comunicación con los vecinos, para la presentación de documentos y para la realización de trámites administrativos, de encuestas y, en su caso, de consultas ciudadanas. Las Diputaciones provinciales, Cabildos y Consejos insulares colaborarán con los municipios que, por su insuficiente capacidad económica y de gestión, no puedan desarrollar en grado suficiente el deber establecido en este apartado».

Este precepto debe ser puesto en conexión con el nuevo párrafo ñ) del artículo 25.2 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, introducido por la Ley 27/2013, de 27 de diciembre, de racionalización y sostenibilidad de la Administración Local, según el cual corresponde a los Ayuntamientos la promoción en su término municipal de la participación de los ciudadanos en el uso eficiente y sostenible de las tecnologías de la información y las comunicaciones.

Tanto la Ley 27/2013, de 27 de diciembre, como la Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno, junto con otras normas recientes o actualmente en tramitación, reguladoras del llamado «gobierno abierto», nos permiten afirmar que las Entidades Locales tienen suficiente base jurídica para implantarlo, siendo uno de sus pilares esenciales el citado principio de transparencia. La Ley 19/2013, de 9 de diciembre, en su disposición final novena establece que «los órganos de las Comunidades Autónomas y Entidades Locales dispondrán de un plazo máximo de dos años para adaptarse a las obligaciones contenidas en esta Ley». A tal efecto, las Entidades Locales han de iniciar un proceso interno de adaptación a dicha norma, siendo conveniente, entre otras medidas, regular integralmente la materia a través de una Ordenanza. Una de las finalidades por tanto, de esta Ordenanza es, junto a la habitual de desarrollar la ley, generar un incentivo e iniciar la efectiva implantación en las Entidades Locales de las medidas propias de los gobiernos locales trans-

hastea da, ordenantzarik gabeko agertoki batek edo bakanki emandako ordenantzaren bat duen agertoki batek izango lukeenak baino aurrerapen eta eraginkortasun maila askoz ere handiagoarekin. Alde horretatik, ordenantza honek helburu bikoitza du: arautzailea, batetik, eta gardentasun-printzipioaren eraginkortasuna sustatzekoa, bestetik.

Gobernu ireki hori eta berorren printzipioak (gardentasuna, datu irekiak, parte-hartzea, lankidetzeta) toki-administrazioarekin identifikatzeari dagokionez, ez dago inolako zalantzarik. Herritarrek parte-hartzera eta gai publikoetan laguntzera bultzatzeko gardentasunean oinarritzen da gobernu irekia, eta baliabide gisa erabiltzen du. Gobernu irekia gardentasunean oinarritzen da parte-hartzera eta lankidetzara iristeko. Gure ustez, jabetu beharra dugu gizartean agertoki berria sortzen ari dela, XXI. mendearen hasieran informazio eta komunikazio teknologien iraultza gertatu ondoren. Herritarren aurrean kontuak ematen ez dituen gobernu bat ez dago legitimatuta haien aurrean. Toki-administrazioa denez herritarrengandik hurbilen dagoen administrazioa eta herritarrek gai publikoetan parte hartzeko biderik azkarrena, horixe da, zalantzarik gabe, gobernu irekia ezartzeko gokia. Halaber, oso kontuan izan behar da garai historiko honetan parte-hartze hori informazio eta komunikazio teknologien (IKT) bidez gauzatzen dela nagusiki; hala ere, ez dira baztertu behar «teknologikoak» ez diren beste bide batzuk, hala nola herri-ekimena (apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 70 bis.2 artikulua) edo aurrekontu parte-hartzaileak.

Ordenantza honen egiturari dagokionez, zazpi kapitulu ditu.

1. kapituluak, «Xedapen Orokorrak» izenburupean, araudiaren xedea ezartzen da; hauxe: tokiko erakundearen jardueraren gardentasuna arautzea, bai eta informazio publikoa eskuratzeko eskubidearen erabilera ere. Ordenantza hau, administrazio nagusian aplikatzeaz gain, udalaren menpe dauden gainerako erakunde guztietan ere aplikatuko da, erakunde publiko nagusiak haien bidez ere garatzen baitu bere lana, enpresa pribatuak, kontratistak eta zerbitzuen esleipendunak barne. Erakunde horiek guztiek gardenak izan behar dute nahitaez, eta, horretarako, 3. artikuluan zehaztutako baldintzak betetzeaz gain, artikulua horretan adierazitako neurriak hartu behar dituzte. Betebeharrei dagokienez, herritarrek 4. artikuluan adierazitako eskubideak dituzte, eta aurrez aurre edo bide telematikoa erabiliz gauzatu ahal izango dituzte, baldintza beretan; edozein modutan ere, informazio publikoaz arduratuko den unitate bat sortzea aurreikusi da. I. kapituluaren amaieran, ordenantza honetan jasotzen den araudia kudeatzeko printzipio orokorrak ezartzen dira.

II. kapituluak, informazio publikoari buruzkoak, 19/2013 Legean, abenduaren 9koan, jasotako definiziotik abiatuta, pertsonen informazio publikoa eskuratzeko dituzten moduak arautzen ditu, lehenik eta behin. Ondoren, informazio hori osatzen duten datuek, edukiek eta dokumentuek bete behar dituzten baldintzak ezartzen ditu, ordenantza honen ondorioetarako. Azkenik, informazio publikoa eskuratzeko muga orokorrak garatzen dira; 10. artikuluan berariaz ezarritakoak edo araudi berezian ezarritakoak dira muga bakarrak, eta datu pertsonalak bereziki babestu beharrekoak dira, izaera pertsonaleko datuak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan, abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuan, aurreko legea garatzeko araudia onartzen duenean, eta ordenantza honetako 11. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

III. kapituluak, gardentasun aktiboa arautzen da; hau da, ordenantza honen aplikazio-eremuaren barnean dauden erakundeek ofizioz argitaratu behar duten informazio publikoa, toki-administrazioaren jarduera ondoen ordezkatzeko duena eta jendeak gehien eskatzen duena delako. Informazio hori baliabide elektronikoen bitartez argitaratuko da: gune elektronikotan, web orri instituzionaletan edo ordenantza honen aplikazio-eremuaren barneko erakundeen gardentasun-atarietan.

parentes, con un grado de anticipación y eficacia muy superior al que derivaría de un escenario huérfano de Ordenanzas, o con alguna de ellas dictada aisladamente. En este sentido la Ordenanza tiene un doble objetivo: el regulatorio y el de fomento de la efectividad del principio de transparencia.

En cuanto a la identificación de este gobierno abierto y sus principios (transparencia, datos abiertos, participación, colaboración) con la administración local, no cabe ninguna duda. Gobierno abierto es aquel que se basa en la transparencia como medio para la mejor consecución del fin de involucrar a la ciudadanía en la participación y en la colaboración con lo público. El Gobierno Abierto se basa en la transparencia para llegar a la participación y la colaboración. Consideramos que es el momento de ser conscientes de que en la sociedad aparece un nuevo escenario tras la revolución de las tecnologías de la información y las comunicaciones a principios del siglo XXI. Un gobierno que no rinde cuentas ante el ciudadano no está legitimado ante el mismo. Dado que la Administración local es la administración más cercana al ciudadano y el cauce inmediato de participación de este en los asuntos públicos, parece ser sin duda la más idónea para la implantación del Gobierno abierto. Igualmente, se debe tener muy en cuenta que en el presente momento histórico dicha participación se materializa fundamentalmente a través de las tecnologías de la información y las comunicaciones (TIC), si bien no cabe ignorar mecanismos no necesariamente «tecnológicos» como la iniciativa popular (artículo 70 bis.2 de la Ley 7/1985, de 2 de abril) o los presupuestos participativos.

En cuanto a la estructura de la presente Ordenanza, esta se divide en siete capítulos. En el capítulo 1, bajo el título «Disposiciones Generales», se establece el objeto de la norma, que es la regulación de la transparencia de la actividad de la Entidad Local, así como del ejercicio del derecho de acceso a la información pública. La Ordenanza se aplicará no solo a la Administración matriz, sino en su caso a todas las entidades dependientes a través de las cuales también ejerce su actividad la entidad pública principal, incluidas las empresas privadas, contratistas y concesionarias de servicios. Todas estas entidades tienen la obligación de ser transparentes, para lo cual deben cumplir las condiciones y tomar las medidas establecidas en el artículo 3. En relación con estas obligaciones, los ciudadanos ostentan los derechos que vienen enunciados en el artículo 4, que podrán ejercerse presencialmente o por vía telemática en igualdad de condiciones, estando prevista en todo caso la creación de una unidad responsable de la información pública. Concluye el capítulo I con el establecimiento de los principios generales por los que se va a regir la regulación contenida en la Ordenanza.

El capítulo II, dedicado a la información pública, a partir de la definición de la misma contenida en la Ley 19/2013, de 9 de diciembre, regula, en primer lugar, las distintas formas que tienen las personas de acceder a la información pública. A continuación establece los distintos requisitos que han de tener los datos, contenidos y documentos que conforman dicha información a los efectos de esta Ordenanza. Finalmente, se desarrollan las limitaciones generales al acceso a la información pública, siendo los únicos límites los establecidos expresamente en el artículo 10 o en la normativa específica, siendo objeto de especial protección los datos de carácter personal de acuerdo con lo previsto en la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de protección de datos de carácter personal y el Real Decreto 1720/2007, de 21 de diciembre, por el que se aprueba el Reglamento de desarrollo de dicha Ley y el artículo 11 de la presente Ordenanza.

En el capítulo III se regula la transparencia activa, esto es, la información pública que las entidades comprendidas dentro del ámbito de aplicación de la Ordenanza deben publicar de oficio por ser la más representativa de la actividad de la Administración local y la de mayor demanda social. Dicha información se publicará por medios electrónicos: en las sedes electrónicas, páginas webs institucionales o portales de transparencia de las entidades incluidas en el ámbito de aplicación de la Ordenanza.

IV. kapituluak gardentasun pasiboa arautzen du, hau da, informazio publikoa eskuratzeko eskubidea gauzatzeari dagokiona; edozein pertsona fisiko edo juridikori, publiko zein pribaturi, dagokio horren titulartasuna, aurrez herritartasunik, auzotasunik edo antzekorik eskatu beharrik gabe. Informazio hori eskuratzeko eskubidea ukatu ahal izateko, aurrez araututako muga horietako bat hartu ahal izango da oinarritzat, betiere, aurrez emandako ebazpen arrazoituaren bidez, gai horiek kaltetuko direla egiaztatzen bada eta informazioa eskuratzeko justifikatzen duen goragoko interes publiko edo pribaturik ez badago. Kapitulu honetan araututako eskubidea erabiltzeko, ordenantza honek prozedura azkarra ezartzen du, eta prozedura horren ebazpena kontrakoa bada, abenduaren 9ko 19/2013 Legeko 23. artikulua aipatzen duen aukerako erreklamazioa jarri ahal izango da horren aurka. Ebazpena aldekoa bada, informazio publikoa ebazpenarekin batera emango da edo, hala badagokio, jakinarazpena eman eta gehienez ere hamar eguneko epean.

V. kapituluak elkarlaneko gardentasuna aztertzen du, eta informazio publikoa berrerabiltzeko araubidea zehazten du; azken horren funtsezko helburua herritarrengan balio publikoa sortzea da, esparru sozialean, berritzailean edo ekonomikoan. Berrerabiltzeko araubide hori ez da aplikatuko jabetza intelektualaren edo industrialaren eskubideen menpe dauden dokumentuetan, gai horretan indarrean dagoen araudian eta, bereziki, 37/2007 Legean, azaroaren 16koan, sektore publikoko informazioa berrerabiltzeko buruzkoan, ezarritako gainerako mugen kalterik gabe. Dena den, oro har, argitaratutako edo eskuragarri jarritako informazio guztia berrerabili egin ahal izango da, baldintzarik ezartzen ez duen modalitateari jarraituz; beraz, ez da beharrezkoa izango aurretiaz baimena lortzea, eta informazioa dohain eskuratu eta berrerabili ahal izango da, informazio horretan berariaz kontrakoa esaten ez bada behintzat, berori eskuratzeko baldintzak eta ordenantza honetako 28. artikuluan zehaztutakoak betetzen badira nahiz dagokion ordainarazpena ordaintzen bada.

VI. kapituluak lehenengo atalak kexak eta erreklamazioak aurkezteko bidea arautzen du; lehenik, administrazioak publikitate aktiboaren arloan dagozkion betebeharrak betetzen ez baditu, kexak aurkezteko aukera ezartzen du, IV. kapituluaren araututako prozeduraren bitartez eskatu beharrik ez izateko. Bigarrenik, erreklamazioa Gardentasunerako eta Gobernu Onerako Kontseiluaren aurrean nola egin arautzen du; aukerakoa izango da, eta administrazioarekiko auzibidera jo aurretik egin behar da, abenduaren 9ko 19/2013 Legeko 24. artikuluan ezarritakoarekin bat etorruta. Bigarren atalak, tokiko informazio publikoa berrerabiltzearekin lotutako zehapen-araubidea arautzen du, apirilaren 2ko 7/1985 Legeko XI. tituluaren oinarrituta, ez baitago gai honetan zehatzeko boterea esleituko dion arloko araudi berezirik. Arau-haustek sailkatzen dira, honela: oso larriak, larriak eta arinak; eta isunen bidezko zehapen-araubidea ezartzen da. Arau-haustek larriak eta oso larriak diren kasuetan, dokumentuak urtebetetik bost urtera bitartean erabiltzeko debekua ezartzen da, eta ordu arte emandako baimenak baliogabetzen dira.

Azkenik, VII. kapituluak araubidearen ebaluazio- eta jarraipen-sistema arautzen du; berori garatzeko, abiarazteko eta gauzatzeko ahalmen orokorra alkatetza-lehendakaritzaren esku uzten du, eta antolamenduarekin, prestakuntzarekin, sentsibilizatzearrekin eta hedapenarekin lotutako neurriak ematen ditu, hala dagokionean. Era berean, gardentasuna garatzeko eta zaintzeko helburuak eta jarduketak urteko planetan adieraziko dira. Plan eta neurri horiek gauzatu ondoren egindako ebaluazioaren eta jarraipenaren emaitza memoria batean jasoko da, eta horren ardura duen zerbitzuak, gainerako zerbitzuen laguntzarekin, prestatuko du memoria hori.

El capítulo IV regula la transparencia pasiva, es decir, el ejercicio del derecho de acceso a la información pública, cuya titularidad corresponde a cualquier persona física o jurídica, pública o privada, sin previa exigencia de condición alguna de ciudadanía, vecindad o similar. La denegación del acceso a dicha información habrá de ser en base a alguno de los límites previamente regulados, cuando, previa resolución motivada y proporcionada, quede acreditado el perjuicio para aquellas materias y no exista un interés público o privado superior que justifique el acceso. Para el ejercicio del derecho regulado en este capítulo, la Ordenanza establece un procedimiento ágil cuya resolución, y en el supuesto de que sea desestimatoria, puede ser objeto de la reclamación potestativa a que hace referencia el artículo 23 de la Ley 19/2013, de 9 de diciembre. En el caso de resolución estimatoria, la información pública se facilitará junto con dicha resolución o, en su caso, en un plazo no superior a diez días desde la notificación.

El capítulo V se dedica a la transparencia colaborativa, regulando el régimen de reutilización de la información pública, cuyo objetivo fundamental es la generación de valor público en la ciudadanía en los ámbitos social, innovador y económico. Esta reutilización no se aplicará a los documentos sometidos a derechos de propiedad intelectual o industrial, sin perjuicio del resto de límites establecidos en la normativa vigente en la materia, particularmente en la Ley 37/2007, de 16 de noviembre, sobre reutilización de la información del sector público. En todo caso y con carácter general, toda la información publicada o puesta a disposición será reutilizable siguiendo la modalidad sin sujeción a condiciones, lo que conlleva la no necesidad de autorización previa y la gratuidad del acceso y reutilización, salvo que en ella se haga constar expresamente lo contrario y siempre que se cumplan las condiciones de accesibilidad así como las establecidas en el artículo 28 de la Ordenanza, y se satisfaga, en su caso, la exacción que corresponda.

El capítulo VI regula en su sección primera el régimen de quejas y reclamaciones por vulneración de la misma, estableciendo en primer lugar la posibilidad de presentar quejas cuando la Administración no cumpla sus obligaciones en materia de publicidad activa, a fin de evitar tener que solicitarla a través del procedimiento regulado en el capítulo IV. En segundo lugar, se regula la reclamación ante el Consejo de Transparencia y Buen Gobierno, con carácter potestativo y previa a la impugnación en vía contencioso-administrativa, de acuerdo con lo establecido en el artículo 24 de la Ley 19/2013, de 9 de diciembre. La sección segunda regula el régimen sancionador en materia de reutilización de la información pública local, en base al Título XI de la Ley 7/1985, de 2 de abril, dada la ausencia de normativa sectorial específica que le atribuya la potestad sancionadora en esta materia. Se tipifican las infracciones clasificándolas en muy graves, graves y leves y se establece un régimen sancionador consistente en multas y, en el caso de infracciones muy graves y graves, la prohibición de reutilizar documentos durante un periodo de tiempo entre 1 y 5 años y la revocación de autorizaciones concedidas.

Por último, el capítulo VII regula el sistema de evaluación y seguimiento de la norma, que establece la competencia general de la Alcaldía-Presidencia para el desarrollo, implementación y ejecución de la misma, dictando en su caso las medidas organizativas, así como de formación, sensibilización y difusión que correspondan. Asimismo, los objetivos y actuaciones para el desarrollo y mantenimiento de la transparencia se explicitarán en planes anuales. El resultado de las labores de evaluación y seguimiento de la ejecución de estos planes y medidas será objeto de una memoria que, anualmente, elaborará el servicio responsable en colaboración con el resto de los servicios.

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Xedea eta araubide juridikoa.

1. Ordenantza honen xedea honako lege hauek aplikatzea eta garatzea da: 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa; eta 37/2007 Legea, azaroaren 16koa, sektore publikoko informazioa berrerabiltzeari buruzkoa. Horretarako, Legazpiko Udalaren jardunaren gardentasuna arautuko duten arauak ezarriko dira, eta informazio publikoa eskuratzeko eta berrerabiltzeko eskubidea gauzatzeko da, horretarako beharrezko baliabideak –elektronikoak, nagusiki– ezarri.

2. Pertsonen informazio publikoa eskuratzeko eta berrerabiltzeko duten eskubidea abenduaren 9ko 19/2013 Legean, azaroaren 16ko 37/2007 Legean eta bi lege horiek garatzeko autonomia-erkidegoek emandako arauetan nahiz ordenantza honetan aurreikusitako baldintzetan gauzatzeko da.

2. artikulua. Aplikazio-eremua.

1. Honako hauei aplikatuko zaizkie ordenantza honetako xedapenak:

- a) Legazpiko Udala.
- b) Erakunde autonomoak, enpresa-erakunde publikoak eta izaera juridiko propioa duten zuzenbide publikoko erakundeak, udalari lotuta edo horren menpe daudenak.
- c) Merkataritza-sozietateak, artikulua honetako entitateek 100eko 50eko baino gehiagoko partizipazio zuzen edo zeharkakoa badute haien kapital sozialean.
- d) Tokiko ekimen publikoko fundazioak, edo sortzedotazioan edo gobernu-organoetan partaideen gehiengo tokiko erakundeena duten fundazioak.
- e) Artikulu honetan aurreikusitako tokiko erakundeak, organismoak eta gainerako erakundeek osatutako elkarteak.

2. Zerbitzu publikoak ematen dituen edo tokiko administrazio-ahalak dauzkan edozein pertsona fisiko edo juridiko behartuta dago Legazpiko Udalari ordenantza honetan aurreikusitako betebeharrak betetzeko beharrezkoa den edozein informazio ematera, zerbitzu horiek ematearekin edo administrazio-ahalak gauzatzearekin lotutako alderdi guztietan. Kontratuen esleipendunei ere badagokie betebeharrak, dagokion kontratuan aurreikusitako baldintzetan; informazioa udalaren esku jartzeko bidea ere zehaztuko da.

3. artikulua. Gardentasunarekin, berrerabiltzearekin eta informazioa eskuratzerekin lotutako betebeharrak.

1. Gardentasunarekin, informazioa eskuratzerekin eta berrerabiltzearekin lotutako betebeharrak betetzeko, ordenantza honetan aurreikusitako baldintzak kontuan hartuta, honako hauek egin behar dituzte 2.1 artikuluan aipatutako erakundeek:

a) Lehentasunez zabaldu nahi den informazio garrantzitsuen lantzea, eguneratuta izatea eta hedatzea, baliabide elektronikoak erabiliz nagusiki, web orrien edo egoitza elektronikoaren bidez, hala, jardun publikoaren funtzionamenduetarekin eta kontrolarekin lotutako jardueraren gardentasuna bermatzeko eta informazioa eskuratzeko eta berrerabiltzeko aukera emateko. Arlo horretan, EUDEL Euskadiko Udalen Elkarteak prestatutako dokumentu hau hartuko du oinarritzat udalak: Udalen gardentasuna abian jartzeko eta kudeatzeko eskuliburua.

b) Eskuartean duten informazio publikoa jasoko duen katalogo bat lantzea, eguneratuta izatea eta hedatzea, informazio hori non aurki daitekeen argi eta garbi adieraziz; katalogo hori formatu elektroniko irekietan ere zabaldu beharko da, informazio hori berriro zabaltzeko, berrerabiltzeko eta baliatzeko aukera emango duten makinek irakurtzeko moduan.

CAPÍTULO I

DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1. Objeto y régimen jurídico.

1 La presente Ordenanza tiene por objeto la aplicación y desarrollo de la Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno y de la Ley 37/2007, de 16 de noviembre, sobre reutilización de la información del sector público, a través del establecimiento de unas normas que regulen la transparencia de la actividad del Ayuntamiento de Legazpi, así como del ejercicio del derecho de reutilización y acceso a la información pública, estableciendo los medios necesarios para ello, que serán preferentemente electrónicos.

2. El derecho de las personas a acceder a la información pública y a su reutilización se ejercitará en los términos previstos en la Ley 19/2013, de 9 de diciembre, en la Ley 37/2007, de 16 de noviembre, en la normativa autonómica dictada en desarrollo de ambas leyes y en esta Ordenanza.

Artículo 2. Ámbito de aplicación.

1. Las disposiciones de esta Ordenanza serán de aplicación a:

- a) Ayuntamiento de Legazpi.
- b) Los organismos autónomos, las entidades públicas empresariales y las entidades de derecho público con personalidad jurídica propia, vinculadas o dependientes del Ayuntamiento.
- c) Las sociedades mercantiles en cuyo capital social la participación, directa o indirecta de las entidades previstas en este artículo sea superior al 50 por 100.
- d) Las fundaciones de iniciativa pública local o de participación mayoritaria de las Entidades Locales, ya sea en su dotación fundacional o en sus órganos de gobierno.
- e) Las asociaciones constituidas por la Entidad Local, organismos y demás entidades previstos en este artículo.

2. Cualquier persona física o jurídica que preste servicios públicos o ejerza potestades administrativas de titularidad local, en todo lo referido a la prestación de los mencionados servicios o en el ejercicio de potestades administrativas, deberá proporcionar al Ayuntamiento de Legazpi la información que sea precisa para cumplir con las obligaciones previstas en la presente Ordenanza. Los adjudicatarios de contratos estarán sujetos a igual obligación en los términos que se establezcan en los respectivos contratos y se especificará la forma en que dicha información deberá ser puesta a disposición del Ayuntamiento.

Artículo 3. Obligaciones de transparencia, reutilización y acceso a la información.

1. Para el cumplimiento de las obligaciones de transparencia, acceso a la información y reutilización y en los términos previstos en esta Ordenanza, las entidades mencionadas en el artículo 2.1 deben:

a) Elaborar, mantener actualizada y difundir, preferentemente por medios electrónicos, a través de sus páginas web o sedes electrónicas, la información cuya divulgación se considere de mayor relevancia para garantizar la transparencia de su actividad relacionada con el funcionamiento y control de la actuación pública, permitir la reutilización de la información y facilitar el acceso a la misma. En este aspecto el Ayuntamiento tomará como base la «Guía para la puesta en marcha y gestión de la Transparencia municipal» elaborada por EUDEL, Asociación de municipios vascos.

b) Elaborar, mantener actualizado y difundir un catálogo de información pública que obre en su poder, con indicaciones claras de dónde puede encontrarse dicha información y ofrecer también dicho catálogo en formatos electrónicos abiertos, legibles por máquinas que permitan su redistribución, reutilización y aprovechamiento.

c) Eskatutako informaziorako egokiak izango diren kontulta-baliabideak zehaztea eta mantentzea.

d) Informazioa kudeatzeko neurriak hartzea, informazioa bilatzea eta hedatzea erraza izan dadin eta informazioa eskuragarria, elkar eragiteko modukoa eta kalitatezkoa izan dadin.

e) Informazioa argi, ondo antolatuta eta pertsonak ulertzeko moduan argitaratzea.

f) Informazioa eskuratzeko eskubideari buruzko edukari, hori erabiltzeko prozedurari eta ebazteko eskumena duen organoari dagokion informazioa argitaratzea eta hedatzea.

g) Informazioa berrerabiltzeko baldintzei buruzko informazioa herritarrentzat modu argi eta zehatzean argitaratzea eta hedatzea.

h) Ordenantza honek pertsonen aitortzen dizkien eskubideak hedatzea, pertsonak aholkatzea eskubide horiek modu egokian erabiltzeko, eta informazioa bilatzen laguntzea.

i) Gehieneko epeen barnean eta eskatzaileak aukeratutako moduan eta formatuan ematea eskatutako informazioa, ordenantza honetan ezarritakoarekin bat etorrita.

2. Ordenantza honetan jasotako betebeharez gain, publikotasunaren arloan erregimen zabalagoa aurreikusten duten berriazko beste xedapen batzuk ere aplikatu ahal izango dira.

3. Ahalmen urriko pertsonen eskuragarri izango dute ordenantza honetan aurreikusitako informazio guztia, eta bitarteko eta formatu egokien bidez emango zaie informazio hori, eskuragarriak eta ulergarriak izan daitezzen, eskuragarritasun unibersalaren eta guztiontzako diseinuaren printzipioari jarraiki.

4. artikulua. *Pertsonen eskubideak.*

Ordenantza honetan zehaztutako esparruan, pertsonen honako eskubide hauek dituzte:

a) Publikotasun betebeharretara lotutako informazioa eskuratzeko, ordenantza honetan ezarritakoaren arabera.

b) Eskatutako informazioa duten dokumentuak edo informazio hori eskuratzeko modua ematen dutenak erakunde edo entitatearen esku dauden edo ez jakitea; erakunde edo entitatearen esku ez daudenean, dokumentu horien kokalekuaren berri eman beharko zaie.

c) Informazioa bilatzerakoan laguntza jasotzea.

d) Informazioa eskuratzeko eskubidea erabiltzeko orduan aholkularitza egokia eta ulergarria jasotzea.

e) Gehieneko epeen barnean eta aukeratutako moduan eta formatuan jasotzea eskatutako informazioa, ordenantza honetan ezarritakoarekin bat etorrita.

f) Eskatutako informazioa ukatzea edo, hala dagokionean, aukeratutakoa ez den moduan edo formatuan emateko arrazoiak ezagutzea.

g) Eskatutako informazioa dohain lortzea; hala dagokionean, kopiak edo jatorrizkoa ez den beste formatu bat eskatzeagatik sor daitezkeen ordainarazpenak ordaindu beharko dira.

2. Edozein pertsonak –fisiko zein juridiko, publiko zein pribatu– erabili ahal izango ditu ordenantza honetan adierazitako eskubideak, eta ez da naziotasun, herritartasun, auzotasun edo bizileku jakin batekin lotutako inolako baldintzarik eskatuko.

3. Tokiko erakundea ez da inoiz edonork informazio publikoaz egin dezakeen erabileraren erantzule izango.

5. artikulua. *Informazioa eskuratzeko bitartekoak.*

1. Ordenantza honen aplikazio-eremuaren barnean sartzeko diren erakundeek hainbat bitarteko egokitu behar dituzte informazio publikoa bideratzeko, pertsona guztiek informazioa

c) Establecer y mantener medios de consulta adecuados a la información solicitada.

d) Adoptar las medidas de gestión de la información que hagan fácil su localización y divulgación, así como su accesibilidad, interoperabilidad y calidad.

e) Publicar la información de una manera clara, estructurada y entendible para las personas.

f) Publicar y difundir la información relativa al contenido del derecho de acceso a la información, al procedimiento para su ejercicio y al órgano competente para resolver.

g) Publicar y difundir la información relativa a los términos de la reutilización de la información de forma clara y precisa para los ciudadanos.

h) Difundir los derechos que reconoce esta Ordenanza a las personas, asesorar a la mismas para su correcto ejercicio y asistirles en la búsqueda de información.

i) Facilitar la información solicitada en los plazos máximos y en la forma y formato elegido de acuerdo con lo establecido en la presente Ordenanza.

2. Las obligaciones contenidas en esta Ordenanza se entienden sin perjuicio de la aplicación de otras disposiciones específicas que prevean un régimen más amplio en materia de publicidad.

3. Toda la información prevista en esta Ordenanza estará a disposición de las personas con discapacidad en una modalidad accesible, entendiéndose por aquella la que sea suministrada por medios y en formatos adecuados de manera que resulten accesibles y comprensibles conforme al principio de accesibilidad universal y diseño para todos.

Artículo 4. *Derechos de las personas.*

En el ámbito de lo establecido en esta Ordenanza, las personas tienen los siguientes derechos:

a) A acceder a la información sujeta a obligaciones de publicidad de acuerdo con lo establecido en esta Ordenanza.

b) A ser informadas si los documentos que contienen la información solicitada o de los que puede derivar dicha información, obran o no en poder del órgano o entidad, en cuyo caso, éstos darán cuenta del destino dado a dichos documentos.

c) A ser asistidas en su búsqueda de información.

d) A recibir el asesoramiento adecuado y en términos comprensibles para el ejercicio del derecho al acceso.

e) A recibir la información solicitada dentro de los plazos y en la forma o formato elegido de acuerdo con lo establecido en esta Ordenanza.

f) A conocer las razones en que se fundamenta la denegación del acceso a la información solicitada y, en su caso, en una forma o formato distinto al elegido.

g) A obtener la información solicitada de forma gratuita, sin perjuicio del abono, en su caso, de las exacciones que correspondan por la expedición de copias o transposición a formatos diferentes del original.

2. Cualquier persona, física o jurídica, pública o privada, podrá ejercer los derechos contemplados en esta Ordenanza, sin que quepa exigir para ello requisitos tales como la posesión de una nacionalidad, ciudadanía, vecindad o residencia determinada.

3. La Entidad Local no será en ningún caso responsable del uso que cualquier persona realice de la información pública.

Artículo 5. *Medios de acceso a la información.*

1. Las entidades incluidas en el ámbito de aplicación de esta Ordenanza están obligadas a habilitar diferentes medios para facilitar la información pública, de modo que resulta garan-

eskuragarri dutela bermatzeko, haien prestakuntza, baliabideak, inguruabar pertsonalak edota baldintza edo egoera soziala edozein izanik ere.

2. Horretarako, Legazpiko Udalak honako bide hauetako-
ren bat eskainiko du informazio publikoa eskuratzeko:

- a) Informazio-bulegoak.
- b) Web orrialdeak edo egoitza elektronikoak.
- c) Telefono bidezko arreta-zerbitzuak.
- d) Horretarako prestatutako beste gela, sail edo baliabide elektroniko batzuk.

6. artikulua. *Informazio publikoaz arduratzen den unitatea.*

Informazio publikoaz arduratuko den administrazio-unitate bat izendatuko du udalak, udaleko idazkariaren zuzendaritza-
pean eta ardurapean, eta honako zeregin hauek izango ditu:

- a) Informazioaren arloa koordinatzea, ordenantza honetan zehaztutako betebeharrak betetzeko, saileko, organismoko edo erakundeko organo eskudunetatik beharrezko informazioa jasoz.
- b) Informazioa eskuratzeko eskabideak izapidetzea, eta, hala dagokionean, baita 19. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorrita ezar daitezkeen erreklamazioak ere.
- c) Pertsonen aholkua ematea informazioa eskuratzeko eskubidea gauzatzeko, eta informazioa bilatzen laguntzea, beste administrazio-unitate batzuek esleituta dituzten funtzioez gain.
- d) Informazioa eskatzeko eskabideen erregistroan izena ematea, hala dagokionean.
- e) Tokiko erakundearen esku dagoen informazio publikoari buruzko katalogo bat, informazio hori non aurki daitezkeen argi adieraziko duena, sortzea eta eguneratuta izatea.
- f) Administrazioaren gardentasunari, berrerabiltzeari eta informazio publikoa eskuratzeko eskubideari buruzko txostenak prestatzea.
- g) Informazio publikoa zabaltzea, eta hainbat helbide elektronikorekiko loturak sortzea eta eguneratuta izatea, horien bidez informazioa eskuratu ahal izateko.
- h) Hartu beharreko neurriak hartzea, informazio publikoaren mailakako hedapena bermatzeko eta herritarren esku jartzeko delatuztatzeko, ahalik eta modu zabal eta sistematikoan.
- i) Hartu beharreko neurriak hartzea, sare publiko elektronikoen bitartez informazio publikoa datu-base elektronikoen bitartez eskuragarri dagoela bermatzeko.
- j) Ordenamendu juridikoak esleitutako beste guztiak, eta ordenantza honetako xedapenak aplikatzen direla bermatzeko beharrezko direnak.

7. artikulua. *Printzipio orokorrak.*

1. Informazio publikoaren publikotasuna: Legazpiko Udalean dagoen informazioak izaera publikoa duela aurreikusten da.

